



## **FUNTSEZKO JARDUERAK**

Gure proiektua ongi ateratzeko eta negozio-ereduak funtziona dezan, egin behar dugun gauza garrantzitsuena lan taldean ongi antolatzea izango da. Hau da, enpresa bat sortu nahi badugu, lan taldeako partaide bakoitzak ikuspegi, plangintza, sinergia, komunikazio, motibazio eta negoziazio on bat eduki behar dute. Nola nahi, jarrera proaktibo bat edukiz.

Hau guztia gutxi balitz, balio-proposamena sortzeko egin behar den lehen jarduera, lan taldean honako galdera hauek erantzutea da:

- Zer eskaintzen diegu merkatuari?
- Zein dira gure balio proposamenaren atributuak?
- Zein da bezeroen segmentu bakoitzari eskaintzen dizkiogun produktu eta zerbitzu zehatzen multzoa?

Hau egindakoan, gure bezeroa idenifikatuko dugu. Ondoren, gure produktuak bezeroei dakartzan abantailen eta balioen zerrenda egingo dugu. Eta azkenik, gure proposamena besteekin alderatuz zergatik den hobeagoa hitz egingo dugu.

Dena dela, gure ustez balio-proposamena sortzeko hainbat faktore garrantzitsu kontuan eduki behar ditugu: Gure enpresak gure bezeroaren arazoa edo beharra nola ebazten duen, zer onura izan behar duen bezeroak gure zerbitzutik eta zergatik aukeratu behar diguten guri eta ez gure lehiakideei.

Azken finean, oso garrantzitsua da gure proiektua aurrera ateratzeko balio-proposamen on bat eskaintzea bezeroei. Horrela, bezeroek beste enpresekin alderatzen ditutenean guk zer eskaintzen dugun ikusiko dute. Hau da, bezeroei, beste enpresa batzuk baina produktu eta kalitate hobegoa eskaintzen dugula komunikatu behar diegu.

Amaitzeko, gure enpresak funtziona dezan, balio-proposamen on bat egiteaz gain, aplikaziorako edozein arazo konpontzeko informatika bat dugu gure lan taldean eta beharrezkoa bada kanpo enpresen esku uziko ditugu jarduera batzuk.